

**GURE**

**KABIA**

ETXEGINTZA GIDA

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU

[2026/05]

LEA-ARTIBAI,  
MUTRIKU ETA  
BUSTURIALDEA

**HITZA**



@estiolasolo



688 638 883  
MARKINA-XEMEIN  
@estiolasolo

BARNE DISEINUA · PROIEKTU INTEGRALAK · ERREFORMAK  
ALTZARIAK · DEKORAZIOA

# Bizitza etxe denean

## GURE KABIA

ETXEGINTZA GIDA

Argitaratzailea: Lea-Artibaialdeko Hedabideak E.M.

Helbidea:

Markina-Xemein

Arretxinaga kalea 1

tel.: 94-684 44 36 • lh@hitza.eus

www.busturialdea.hitza.eus

www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus

Zerbitzu gida:



[lea-artibaietamutriku.hitza.eus/zerbitzu-gida](http://lea-artibaietamutriku.hitza.eus/zerbitzu-gida)



HITZA leamutriku



HITZA Lea-Artibai eta Mutriku

Publizitatea: HITZA

Diseinua, maketazioa eta testuak: 11barri

Argazkiak: Unsplash

Aterpea, intimitatea, memoria eta identitatea. Etxebizitzak horixe dena sinbolizatzen du pertsonen bizitzan. Antzina zein orain, lau paret, behegaina eta sabaiaz harago, babes fisiko eta emozionala eskaintzen ditu: bertakoen kabia da; lasai eta eroso egoteko tokia. Egon eta izateko modua. Horretarako, ondo prestatu beharra dago, bertako bizilagunen premietara egokitu eta nortasunez jantzi, beti ere aholkulari aproposen laguntzarekin, eta Lea-Artibain badaude makina bat. HITZAren gida honetan horiek erraz-erraz aurkitu ahal izango dituzu, hainbat aholku eta jakingarri eskuratzeaz batera.



zerbitzua eta  
lana euskaraz



Argitalpen honek  
Bizkaiko Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du.



# Aurkibidea

## AHOLKULARITZA ETA FINKA ADMINISTRATZAILEAK

LAGUNKOR (Ondarroa)	45
I. ARETXAGA (Lekeitio)	08

## ALTZARIAK ETA AROZTEGIAK

ADAKAITZ (Ondarroa)	04
DK (Lekeitio)	29
EZENARRO (Etxebarria)	10
GARATEA ALTZARIAK (Lekeitio)	15
IBANE (Markina-Xemein)	38
LAIKOR (Lekeitio)	31
MALAXETXEBARRIA (Ispaster)	39
OSA (Ondarroa)	36
ZARAUTZ ALTZARIAK (Lekeitio)	28

## ARKITEKTOAK

ARKIBIDE (Markina-Xemein)	34
JANIRE ZUBIZARRETA (Lekeitio)	14
JAVIER ETA IANIRE DE ANDRES (Markina-Xemein)	22
XABIER EPELDE (Markina-Xemein)	09

## BARNE DISEINUA

DK STUDIOA (Lekeitio)	29
ESTI OLASOLO (Markina-Xemein)	02
IBANE (Markina-Xemein)	40
IKUSI (Lekeitio)	19
SANEAMIENTOS ONDARROA (Ondarroa)	35

## BURDINDEGIAK

BADIOLA (Ondarroa)	30
XURI (Markina-Xemein)	27

## ELEKTROGAILUA

AGINAGA (Markina-Xemein)	05
--------------------------	----

## ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

AGINAGA (Markina-Xemein)	05
MAGUREGI (Lekeitio)	13
SUGASLAN (Lekeitio)	17
URKAN (Mutriku)	11

## ERAIKUNTZA MATERIALA

IKUSI (Lekeitio)	19
SANEAMIENTOS ONDARROA (Ondarroa)	35

## ERAIKUNTZA

ANTZOMENDI (Mutriku)	20
EGIGUREN (Lekeitio)	28
ELORRETA (Mutriku)	07
IBETARRI (Aulesti)	41
KORTABITARTE (Lekeitio)	18
OLAZAR (Markina-Xemein)	25
OIZ BARREN (Markina-Xemein)	46
SAGARMINA (Deba)	23
URRE (Aulesti)	38
ZELAIALDE (Markina-Xemein)	47
ARKIBIDE (Markina-Xemein)	34

**ADAKAITZ**  
aroztegia

Ateak, tarimak, leihoak, zokaloak,  
pertsianak, sukalde eta altzari muntaketak

605 715 54 04 • 657 79 98 09

Egidazu kaia, 7 • **ONDARROA**

**Alex**  
Margolanak  
Edozein motatako lanak

**689 973 912**  
Amoroto  
margolanakalex@hotmail.com



**FORJA ARTISTIKOA**

CESAR ALVOZ (Markina-Xemein) 37

**HIRI ALTZARIAK**INOXKEA (Gizaburuaga) 44  
CESAR ALCOZ (Markina-Xemein) 37**INMOBILIARIAK**ARRIZABALAGA (Markina-Xemein) 23  
EZENARRO (Etxebarria) 10  
LAGUNKOR (Ondarroa) 45  
OIZ BARREN (Markina-Xemein) 46  
I. ARETXAGA (Lekeitio) 06**INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ETA GEHIAGO**AGINAGA (Markina-Xemein) 02  
ARNAITZ CASCO (Lekeitio) 25  
ETXEBARRIA (Lekeitio) 42  
UGARTEBURU (Lekeitio) 16  
URKAN (Mutriku) 11**IGELTSEROAK, ERREFORMAK ETA GEHIAGO**GOIXARRI (Mutriku) 42  
GORKA ERREFORMAK (Ondarroa) 32  
LAUROK (Berriatua) 39  
LEKIPO (Lekeitio) 24  
REFORMAS DIMI (Ondarroa) 21  
UGARTEBURU (Lekeitio) 16**ITURGINTZA, BEROGINTZA ETA GASA**IZARRA (Mutriku) 43  
MAGUREGI (Lekeitio) 13  
SUGASLAN (Lekeitio) 17  
UNAI ITURGINTZA (Etxebarria) 05  
XABAT (Ondarroa) 15**LEIHOAK**IBARPLAS (Itziar) 48  
KAREAGA ATEAK (Lekeitio) 26**MARGO DENDAK**

TXAKARTEGI MARGOAK (Lekeitio) 20

**MARGOGINTZA**ALEX MARGOAK (Amoroto) 04  
ERIK MARGOAK (Markina-Xemein) 36  
BERRIZTU (Ondarroa) 20  
MARGO-LAN (Ondarroa) 14  
TXAKARTEGI MARGOAK (Lekeitio) 43**MARMOLDEGIAK**

PLAZA (Ispaster) 32

**TELEKOMUNIKAZIOAK**

MANKA (Berriatua) 33



**UNAI  
ITURGINTZA**

**BAIMENDUTAKO  
INSTALATZAILEA:  
BEROKUNTZA  
ITURGINTZA  
GASA  
ENERGI  
BERRIZTAGARRIAK**

ETXEBERRIA  
Altzibar Auzoa 2- Behea

MARKINA XEMEIN  
Karmengo kalea 14- Behea

TEL. 649081472 / 946160055  
unaiarizmendi@hotmail.com



**AGINAGA**  
argi-indar

[www.aiaginaga.com](http://www.aiaginaga.com)

- ▶ Instalazioak
- ▶ Etxetresna elektrikoak
- ▶ Telekomunikazioak

Artibai kalea, 30 MARKINA-XEMEIN  
info@aiaginaga.com **94-616 77 20**

# Kolore guztien batura

**P**antonek 11-4201 Cloud Dancer aukeratu du 2026ko kolore. Lehenengo aldiz, markak zuria izendatu du urtea ordezkatzeko; tonu jakin bat: Cloud dancer. Dio dotorezia, hasiera berriak eta lasaitasuna sinbolizatzen dituela, garai frenetikoekiko kontrapuntuan.



**Cloud Dancer**  
11-4201



Kontsumitzaileak gero eta gehiago jabetzen dira munduari eragiten dioten arazoek, dela ingurumenean, gizartean edo ekonomian, eta arrazoi horregatik, dekorazioan arduraz jokatzeko da joera, konponbide estetiko hutsetara mugatu ordez. Etorkizunari begira daude, eta markak eta produktuak jasangarriago izatea eskatzen ari dira, alegia, balio horiekin bat egitea. Eta kolore baten edo bestearen alde egitean ere hori nabari da, profesionalak eraldaketa horrekin bat datozen tonuak aukeratzen ari baitira. Hortik aurrera, ñabardurek ere lan handia egin dezakete espazio paregabeak lortzeko.

Testuinguru horretan azaldu da aurtengo Pantone kolorea, Cloud dancer, dotoreziaren eta lasaitasunaren adierazle. Halere, ez dira nahastu behar lasaitasuna eta kontrasterik eza. Gakoa ez da patxadari uko egitea, baizik eta hura aberastea. Zelan? Estantatuari eta koloreari beldurra galdu behar zaio, eta horretan ehun-gaiak oso aliatu onak dira. Ohe estalkiek edo kuxinek joko horretan lagundu ahal dute. Gainera, ehunek geruzekin jolasteko aukera ematen dute. Kontua ez da soilik koloreagehitzea, testurak, erritmoak eta konbinazioak sartzea baino. Artearen eskutik ere lortzen da efektua. Izan ere, hierarkia bisualari dagokionez, artelanak dira protagonistak: gelako beste edozein objekturen gainetik arreta eskatzen dute. Hortaz, obra indartsu batek espazio neutro bat erabat eralda dezake. Puntu fokal gisa jokatzeko du, eta begirada antolatzen.

### TENDENTZIAK

**Terrakota eta lurraren tonuak:** Tonu beroen eta naturalen arteko fusioak naturarekiko lotura iradokitzen du, eta espazioetan berotasuna, egonkortasuna eta ongizate-sentsazioa ematen.



**Fukusia eta beste tonalitate batzuk:** hots, urdin-berdexka, arrosa fluorra, urdin grisaxka pastela, anbar horiak eta berde menda. Dinamismoa eta energia ematen dute.

Batzuek eta besteek paleta joria eta orekatua osatuko dute, eta bi premia asetuko dituzte, aldi berean: alde batetik, berrikuntza eta, bestetik, lotura emozionala.

### HORMAK

Margotu horma bat kolore sutsuz. Arreta erakarriko du, giroa gainkargatu barik. Oinarrizko paretak kolore neutroekin pintatuz gero, oreka mantenduko dugu. Emaidza: kontraste erakarriak, bisualki estimulatzaileak eta hein berean koherenteak.

### EKINLANARI!

2026ko joera koloreak dekorazio proiektuetan egokitu aurretik, bi gauza hartu behar dira kontuan: espazioaren beharra eta koloreen inpaktu emozionala erabiltzaileengan.

# E L O R R R E T A

ERAIKETAK • ERREFORMAK • IGELTSERITZA



**Asier Lersundi** 680 579 961  
**Kepa Martinez** 617 842 004

San Agustin, 4B  
• MUTRIKU  
tf./ faxa 943 60 43 97  
[elorretaeraiketak@gmail.com](mailto:elorretaeraiketak@gmail.com)



# Baliabideak finituak direlako



Arranegi 11, Lekeitio

tf./faxa: 94 465 35 75  
656 58 03 14  
iaretxaga@yahoo.es

**I. Aretxaga**

Finka administratzailea

Higiezin zerbitzuak

Alokairuak eta salerosketak



**Iñigo Aretxaga**

Bizkaiko finka administratzailea, zk.: 808

**E**txean ingurumen inpaktua gutxitu dezakegu energia era eraginkorrean erabilia, ura aurreztuta, hondakinak kudeatuta eta arduratsu kontsumituta.

Kontsumo ohitura onek, jasagarritasunaren alde emandako pauso bakoitzak, norabide onean jarriko gaitu. Etxeko tresnen aukeraketa da lehen urratsa. Ongi apartatuz gero eta ondo erabili, energia aurreztuko dugu, eta energia fakturak murriztu. Horretarako, merkatuan ekipo eraginkorrak daude.

### KARBONO AZTARNA ZELAN JAITSI

Gure CO<sup>2</sup> emisioak murrizten lagundu dezakegu, hainbat alternatibaren bidez:

**Elektrizitate berdea kontratatu:** Energia fluxu berriztagarrietan oinarritutako teknologiek sortutakoa. Ia hondakinik eta emisiorik ez dute eragiten, edo oso gutxi, eta ingurumen eta osasun inpaktua oso txikia da.

**Autokontsumorako panel fotovoltaikoak instalatu:** Energia lortzeko sistema sozializatu bat ahalbidetzen du, energia garbia sortzen du eta energia gastuaren %100 estaltzen du. Argiaren faktura nabarmen murrizteko aukera ona ere bada.

**Konpentsatu zure CO<sup>2</sup> emisioak:** Zelan? Dirua emanez atmosferako emisioak xurgatzen edo murrizten dituzten proiektuei. Jarduera baten garapenak eragina dauka kliman, karbono aztarna uzten du, eta hori neurgarria da.

**Faktura, zure beharretara:** Ziurtatu faktura zure beharretara egokitzen dela.

**Etiketa energetikoa:** Produktu energetikoki eraginkorrekin asko aurreztuko duzu.

### EROSOTASUN TERMIKOA


Etxe barruko airearen tenperatura hobetu dezakegu, urtaroaren arabera. Neguan, eguzki erradiazioek leihoetan jotzen badute, pertsianak igotzen baditugu edo gortina argiak jarri, etxe barrua berotuko dugu. Aldiz, kanpoko tenperaturak beheruntz doazenean, pertsianak jaitsi beharko ditugu. Udan, bero handiegia badago, kontrakoa egingo dugu, hots, leihoen gaineko erradiazioa saihestuko dugu, babes mekanismoak erabiliz, hala nola pertsianak, toldoak edo hegalkinak. Giro tenperatura egunez 20 °C eta 21 °C artean egon beharko litzateke, eta lo egiteko tenperatura, ostera, 17° C eta 18° C artean. Bestalde, ateak eta leihoak ondo isolatu behar dira, zirrikituetatik ainerik sartu ez dadin.

Zenbait aholku ur beroaren erabilera murrizteko: Doitu termostatoaren tenperatura zure beharretara, termoa desentxufatu edo itzali bidaian bazoaz, perlatzaileak erabili (bai ura, bai kontsumitzen ez dugun ura berotzeko behar dugun energia aurrezteko) eta jarri monomandoa ur hotzeko posizioan.

# XABIEREPELDE

## arkitektura arduratsua

Bioeraikuntza - Geobiologia azterketak - Aholkularitza  
Gremioen koordinazioa - Barne erreformak - CEE - ITE  
Txosten teknikoak - Toxiko analisiak - Zaharberritzeak



[www.xabierepeldearkitektura.com](http://www.xabierepeldearkitektura.com)  
680950170 Abesua 7, behea, Markina-Xemein

# Urrezko orratzez josten

**G**remioak ezinbestekoak dira etxebizitza bat atondu eta goitik behera erabiltzailearen gustura uzteko, xehetasun guztiekin.

Hainbat gremioren lanak egiten du posible etxea behar den modura uztea. Baina oso garrantzitsua da euren artean koordinatzea epeak eta aurrekontuak betetzen direla bermatu eta obra bat arrakastatsua izan dadin. Baliabideak optimizatu, akatsak murriztu eta denbora aurreztuz gero, bide onean egongo gara. Izan ere, planifikazio txarrak, besteak beste, lanak atzeratzea eragin dezake, eta prozesu guztia luze egin ahal zaio etxera bueltatzeko gogoz dagoenari.

Gremioen garrantzia neurtzeko gakoak:

**Akatsen kudeaketa:** Ofizioak ez badaude ondo komunikatuta (adibidez, iturgina eta igeltseroa), garestiatera ahal da. Zenbaitetan lana berregin egin beharko dute.

**Espezializazioa:** Gremioek (iturgin, argiketari, zurgin, margolari eta gainerakoek) esperientzia teknikoa daukate, eta instalazio egokia bermatzen dute.

**Segurtasuna:** Ondo koordinatuz gero, lan eremua seguru eta prestatua egongo da hurrengo faserako.

**Prozesuaren egitura:** Dena ondo antolatuta badago, hau da, hasierako lanetatik (eraispinak, igeltserotza) amaierakoak arte (zurgintza, pintura), lanak ez dira etengo.

**EZENARRO**  
ROZTEGI

21

INMOBILIARIA ZERBITZUA





Gremioen koordinatzailearen edo erreforma integralen enpresaren figura erabat funtsezkoa da behar guzti-guztiak antolatu eta sor ditezkeen arazoak azkar eta eraginkortasunez konpontzeko.

#### GREMIONAGUSIAK

Hauek dira erreforma integral batean parte hartzen duten zazpi gremio nagusiak:

**Igeltseroak:** Trenkadak botatzen dituzte, sabai aizunak eta zokaloak kentzen dituzte, zoru zaharra ateratzen dute, paretak igeltsatzen dituzte, azulejoak jarri eta alikatatzen dituzte eta balio bako altzariak eramaten dituzte. Obra osoan daude.

**Iturginak:** Ezinbesteko gremioa. Egiturazko arazoei zein erreforma integralari dagozkion lanei erantzuten diete.

**Elektrikariak:** Etxe bakoitzaren behar espezifikoaren arabera diseinatzen dute instalazioa.

**Arotzak:** Oso arraroa da egurrezko ezer ez duen erreforma bat, dela zoruak, atek edo armairuak berrizteko.

**Arotzeria metalikoa (leihoak):** Leiho eta ate onak kalitate eta ongizatearen sinonimo dira.

**Eskaiolista:** Erreformara sartzen den azken gremioetako bat da, etxebizitzako tutu eta kable elektriko guztiak jarritako daudenean. Eskaiolista da egitura-akats horiek guztiak ezkutuan uzteaz arduratzen dena, eta etxeak berria ematea posible egiten duena.

**Pintoreak:** Eurak dira azkenak sartzen, eta guztia perfektu uzten dute.

/ INSTALAZIO ELEKTRIKOAK / INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK / TELEKOMUNIKAZIOA  
/ ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GESTIOA ETA INSTALAKUNTZA  
/ MANTENIMENDU INDUSTRIALA / IBILGAILU ELEKTRIKOEN KARGAGAILUAK

**UK** **URKAN**  
**TALDEA**



Antzomendi industriagunea, 9. pabilioia • Galdona bidea • MUTRIKU  
Tel. 943-60 39 34 / Faxe. 943-60 71 47 / [urkan@urkan.net](mailto:urkan@urkan.net)

► [www.urkan.net](http://www.urkan.net) ◀

# Lapikoen lurrunean gozo

**S**ukaldea apain edukitzeari gero eta balio handiagoa ematen bazaio ere, sukalde bat, batez ere, funtzionala eta eroso izan behar da.



Iturgintza · Galdarak · Gasa · Energia berriztagarriak



Bosch Condens 4300i

*Eskatu aurrekontua  
konpromiso barik!*

# ITURGINTZA BEHAR GUZTIEI ERANTZUTEKO

Maguregi iturgintzak 50 urte daramatza sektorean zerbitzua ematen.

## ZERBITZUAK

- BAINU ETA SUKALDETAKO ITURGINTZA
- BEROKUNTZA ETA GALDARA INSTALAZIOAK
- GAS INSTALAZIOAK ETA KONPONKETAK.
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK.

Zerbitzu hauek ematen ditu: iturgintza lan orokorrak, galdara, gasa eta energia berriztagarria, dena abangoardiako teknologiarekin. Adibidez, deskaltifikazioarako tresnarik eraginkorrena dauka, garbia eta bizkorra, eta zoru erradiatzaileen instalazioa eskaintzen du. Azken hori irtenbide eraginkorra da ikuspuntu energetikotik, eta berokuntza-sentsazio atsegina ahalbidetzen du, leuna eta uniformea.

Maguregi iturgintzaren erakuslehoan bainua egokitzeko eta eraberritzeko ideiak jaso ahal dira, diseinu eta behar guztietara, esate baterako, bainugela erabat berritu edo ahalik eta denbora laburrenean bainuontziaren ordeztutxa-platera jartzeko. Horretarako, lan talde zabala jartzen du bezeroaren eskura.



Buenaventura Zapirain, 3  
LEKEITIO  
**94-684 00 22**  
**656 70 89 32**  
maguregi\_iturgintza@yahoo.es

Sukaldea, guztiaren gainera, lanerako espazioa da. Beraz, funtzionala eta erosoan izan behar da, eta horretarako, ordenaz gain, hainbat aldagai hartu behar dira kontuan, adibidez, ergonomia. Hori zaintzeko, irtenbide egokia izan daiteke etxetresna elektrikoak zutabean ipinitzea, alegia, haiek erabiltzeko makurtu beharrik ez edukitzea.

Bestalde, biltegiak burukomina eman dezakeen arren, badaude irtenbideak. Txokoetarako sistema erauzgarriak, despentsarako zutabe irristagarriak edo barne konpartimentuak dituzten tiraderek bizitza errazten dute: hobe dena agerian edo eskura badago. Gainera, diseinuagaz bateragarria da, espazio garbiago eta garaikideago ikustea ahalbidetzen baitu.

Aukera edukiz gero, ezkaratza egongelarekin lotu, era horretara argia sartzea eta zabaltasun eta konexio sentrazioa sortzea ahalbidetzen da eta. Intimitatea sakrifikatu gabe egin daiteke hori. Zelan? Gidaridun itxitura batekin, beirazkoa, zurezkoa edo bien arteko nahasketa, une bakoitzean ireki eta ixteko aukera ematen duena.

#### ADINAK, ZERESANA

Adinean aurrera egin ahala, hainbat detaile eskertzen dira, hala nola, sukaldea garbitzen denbora asko ez ematea. Ezkaratza erraz garbitzeko, funtsezkoa da materialak ondo aukeratzea. Porzellanikoek orbanak eta beroa jasaten dituzte, fronte mateek arrastoak disimulatzen dituzte eta tratatutako zurak berotasuna ematen du. Etxetresna elektrikoek dagokienez, adi letra txikiari: aukeratu gailu isilak, intuitiboak eta energetikoki eraginkorrak.

#### ZURIA, PURI-PURIAN

Aurtengo Pantone kolorea ezin aproposagoa da sukalderako. Izan ere, zuriak, alde batetik, zabaltasuna ematen du, eta, bestetik, edozein estilorekin bat dator, batez ere klasikoekin. Gustuaren, premiaren eta espazioaren ezaugarrien arabera, erraz konbinatu daiteke hainbat kolorerekin —adibidez, beltzarekin, modernoa eta elegantea—, apaingarri ausartekin —behegaine hidraulikoa, kasu— eta material ugariarekin —egurra eta metala dira horren adibide batzuk—.



**MARGO-LAN**  
C.B.

- PARKETA LIJATU ETA BARNIZATU
- PINTURA APAINGARRIA
- PINTURA INDUSTRIALA
- FATXADAK, KOMUNITATEAK...

**655 70 53 26 / 610 33 53 83**  
margolan15@gmail.com

**ONDARROA**



*Javier Zubizarreta Garcia*

**Arkitektura estudioa**  
Atea 30, behea 2. Lekeitio

616 143 092  
jzg.arkitektura@gmail.com

EIT txostenak - ziurtagiri energetikoak - erreformak - proiektuak



## FAMILIAN

Haurrentzako sukalde segurua diseinatzea funtsezkoa da espazio horretaz lasaitasunez eta erosotasunez gozatu nahi duen edozein familiarentzat. Sukaldean ematen da denbora gehien etxean, baina arrisku potentzial handienetakoa ere badu: gainazal beroak, objektu zorrotzak, garbitzeko produktuak edo ailegatzeko toki gaitzak.



**Xabat**  
iturgintza  
iturgintza-berogintza-gasa

san inazio, 36-behea · ondarroa  
605 77 20 80

**Garatea**  
ALTZARIAK

Etxerako  
**altzariak neurrira**

info@garatea.com www.garatea.com Tel. 644 632 512

IGELTSEROTZA  
ELEKTRIZITATEA  
ETXE-ISOLAMENDUAK



**UGARTEBURU, C.B.**  
Zumatzeta kalea 2 - 1. D · 48280 LEKEITIO  
Tel. 605 71 72 74



Eta espazio bat segurua, ordenatua eta ondo diseinatua izan daiteke, hirurak. Planifikazio on batekin, posible da ingurune estetiko zein funtzionala sortzea, eta familiako kide guztien beharretara egokitua.

### 1. Altzari egokituak eta izkina arriskutsurik gabeak.

Ertz biribildun altzariak edo ertz nabarmenik ez dutenak ipiniz gero, kolpeak hartzeko arriskua nabarmen murrizten da, batez ere haurrak oinez edo sukaldean korrika hasten direnean.

Gainera, material egokiak aukeratuz gero, hau da, marradurekiko erresistenteak eta garbitzeko errazak (hala nola presio altuko laminatuak edo lakatu mateak), altzariak ondo mantentzen dira, eta luzaroago. Halaber, hobeto push bidezko irekitze sistemak ipintzen badira tiratzaile irtenen ordez, umeak ez kateatzeko.

### 2. Ez utzi eskura elementu arriskutsurik.

Haurrentzako elementu arriskutsuenak labanak, guraizeak, etxetresna elektriko txikiak eta garbiketara produktuak izan ohi dira. Gorde itzazu altzari altuetan edo segurtasun itxigailuak dituzten tiraderetan. Altueran leku askorik ez baduzu, jarri itxitura magnetikoak edo mekanikoak, haurrek atearak eta tiraderak ireki ez ditzaten. Objektu arriskutsuak gune bakar batean bil itzazu, horiek hobeto kontrolatzeko.

### 3. Segurtasun sistemak dituzten etxetresna elektrikoak.

Haur-blokeoa duten indukzio plakek galarazi egiten dute haurrek istripuz egosketa eremua piztea. Ate hotzeko labeek erre-dura arriskua murrizten dute, eta altuera handian dauden mikrouhinek, berriz, elikagai beroak gainbegiratu gabe manipu-



latzea eragozten dute. Tenporizadore automatikoak ere gehitu ditzakezu, etxetresna elektrikoak itzaltzea ahaztuz gero ere.

#### 4. Sukalde ordenatua, sukalde seguruagoa.

Kutxa antolatzaileekin, erretilu ateragarriekin eta erabateko irekierako sistemak dituzten altzariekin, behar duzuna errazago aurkituko duzu, objektu arriskutsuak alde batetik bestera mugitu beharrik gabe. Egunero erabiltzen diren tresnak leku irisgarrietan gorde. Aldiz, mailarik baxuenetan ontzi puskaezinak edo hurrek arriskurik gabe erabili ahal ditzaketena utzi. Bide batez, haien autonomia eta parte-hartzea sustatzen ere lagunduko duzu.

#### 5. Hurrek parte hartzeko guneak.

Beheko kaxoi bat presta dezakezu tresna seguruekin (silikonazko espatulak, plastikozko katiluak, gozogintzarako moldeak) edo mahai osagarri txiki bat, errezeta errazak egiten laguntzeko. Horrek sukaldea heziketarako eta familia elkarbizitzarako leku bihurtzen du.

## AHOLKU GEHIGARRIAK

- Jarri ez irristatzeko alfonbrak, ez erortzeko.
- Armairuetan eta tiraderetan segurtasun itxigailuak ipini.
- Lan-eremuak ondo argiztatu.
- Aukeratu material gogorak eta mantentzen errazak.



ITURGINTZA | GAS PROIEKTUAK  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK |  
ESKABAZIO LANAK



Abaroa etorbidea, 39  
Tel. / Faxa: 94 684 30 22  
635 749 479 Olaia. M.M  
48280 LEKEITIO (Bizkaia)

# Ondo egoteko gakoak



**D**ekoratzea ez da «polita jartzea» bakarrik: batez ere, sostengatuko zaituen giroa sortzea da.

Nola eraldatu espazio bat norbere ongizatea bermatzeko lehentasuna daukala ohartzen garenean?

## FUNTSEZKO BOST ERABAKI

**Espazioak ireki:** Zenbat eta horma gutxiago, hobe, argiak eta energiak zirkulatzeko eta irekitasun sentsazioa lortzeko.

**Materialen nahasketa:** Zura, harria, metala eta ehunak integratu, orekaren eta aberastasun sentsorialaren mesedetan.

**Jarri material naturalak eta gordin:** Zenbat eta egiazkoagoak, orduan eta testura eta natura sentsazio handiagoa. Horrek lasaitasuna eta pertenezia sortzen ditu.

**Erabili kolore neutroko paleta:** Zuria, beixa, grisa edo marroia, esate baterako. Dotorezia, oreka eta lasaitasuna transmititzen dituzte.

**Argiztapen epela eta geruzaka:** Funtsezkoa da etxean babestuta sentitzeko. Argiztapenak konbinatu, hola nola, zeharkako argia sabaitik, zutikako lanparak, zintzilikarioak eta aplikeak, txoko bakoitzean sakontasuna eta erosotasuna sortzen da.

## HIRU URRATSERRAZ

**Kendu behar ez diren elementuak:** Geratzen diren elementu apurrek presentzia izan behar dute, eta espazioa ondo bete.

**Epeltasuna:** Argiteria beroko bonbillak jarri edo mahaiko edo zutikako lanpara pare bat gehitu. Argi beroak sakontasuna ematen du, eta espazio sentsazioa handitu egiten du.

**Ukitzera gonbidatu:** Lihozko edo belusezko kuxin batek sofaren edo besaulkiaren pertzepzioa aldatu egiten du.

**Eraikuntzak**  
Kortabitarte, s.l.

Santa Katalina, 1A  
Tel. 94 684 08 52  
Faxa: 94 684 26 78

**MOTA GUZTIETAKO  
ERAIKUNTZAK ETA  
ERREFORMAK**

Eraikuntza materiala · Barne diseinua

# ESPERIENTZIA PILATU DUGU, ETA ESKAINTZA ZABALA UZTARTZEN JAKIN DUGU



**Ikusi eraikuntza materialetan eskarmentu handiko enpresak adi jarraitzen dio sektorearen bilakalerari.**

Horrela, gaur egun, ohiko materialez gainera, merkatuaren eskaintza berriak esku-eskura jartzten dizkio bezeroari, kalitate, hurbiltasun eta esperientziaren bermearekin.

**Ikusi 1978. urtetik dago martxan. Bada zerbait.**

Urte hauetan guztietan ezagutza pilatzen joan gara, eta eskaintza zabala uztartzen jakin dugu, bai betidanik gure enpresa bereizi izan duena, bai, bezeroak gaur egun eskatzen duena. Era horretara, gure dendan, alde batetik, tamaina, material eta prezio ezberdinetako zeramika, Velux leihoak eta Hergom markako sukaldeak eta tximiniak dauzkagu, alegia, gure enpresaren erreferentziazko produktuak; eta, bestetik, dutxaplaterak, manparak, bainugelako

altzariak eta lur laminatuak (gero eta eskari handiagoa daukate); gama altukoa zein normala.

**Non zaudete?**

Lekeition dago gure denda, Paskual Abaroa etorbidean. Horrez gain, bi biltegi dauzkagu: Lekeition eta Gizaburuagan. Horietan, eraikuntzako ohiko materiala (zementua, kolak, adreilua), hainbat motatako eta koloretako teilak eta lanerako arropa eta erremintak saltzen ditugu, baita ortuetarako lurra ere: substratua (lur abonatua) eta konposta.

**Zer topatuko du Ikusira doanak?**

Kalitate profesionala, materialaren eskuragarritasuna, erosteko azkartasuna eta aholkularitza pertsonalizatua. Gure bezeroen premiak geure egiten ditugu, eta zerbitzurik onena ematera konprometitzen gara. Bezeroaren beharrak aztertu eta gidatu egiten dugu, hura gustura geratzen den arte. Behar duena biltegian ez badaukagu, eskatu egitendugu, eta etxera ere joaten gara neurtzera. Jendeak lasai asko eskatu ahal digu aurrekontua, inolako konpromisorik gabe.




**Ikusi**

Paskual Abaroa Etorbidea, 19  
LEKEITIO  
**94-684 14 99**  
ikusisanti@gmail.com

# Handi zein txiki, estilotsu

**E**gongelak funtzio ugari bete ditzake, eta horren arabera moldatuko dira espazioak. Erabilera bat edo beste izan, denbora asko ematen dugu bertan, eta garrantzitsua da eroso sentitzea.



## ANTZOMENDI

Eraiketak

*Angel Astigarraga*



Antzomendi baserria  
Mijoa auzoa 2  
antzomendi@hotmail.com

670 214514  
Faxa: 943 603764



MARGOLANAK | PLADURRA | FATXADAK | LAN BERTIKALAK

688 82 37 21 · Igor  
ONDARROA

Atsedean hartzeko, otorduatarako, lanerako zein lagunekin egoteko. Egongela gauza baterako baino gehiagorako baliatu daiteke. Beti ere ez da erraza, ordea, askok espaziora moldatu beharra daukate eta. Etxean tokia falta denean, dela sukaldean, dela logelan, hori egongelatik kendu ohi da, eta azkenean, funtsezkoenari leku ezin egonda egiten gara, hots: sofa eroso, mahai osagarria, telebistako altzaria eta gutxieneko biltegitratze bat. Horren eraginez, saloi txikia geratuko zaigu. Ez hori bakarrik: eremuari ez zaio probetxurik ateratzen eta, azkenean, joan-etorritako leku bihurtzen da.

Horri buelta eman ahal zaio, eta egongela, txikia izanagatik, funtzional bihurtu, zabalatasun sentsazioa galdu gabe.

## GAKOAK

**Altzari proportzionatuak:** Aukeratu pieza arinak eta tamaina egokikoak, espazioa ez saturatzeko. Izan ere, sarri ez da estilo kontua, baizik eta proportzio falta. Sofa handiegi bat, alfonbra txiki bat edo motz geratzen den mahai bat arraroa gera daiteke, nahiz eta elementu bakoitza bere aldetik polita izan.

**Kolore argiak:** Tonu neutroetako hormek eta altzariak gela handitzen dute.

**Zuria, hobe:** Argi naturala islatu egingo da haietan, eta lekuak zabalagoa emango du. Nolanahi ere, gakoa gama desberdinekin jokatzeko eta elkarrekin nahastea da.

**Argiztapena:** Argiztapen artifizialari dagokionez, gogoratu askoz hobeto funtzionatzen duela argia geruzatan pentsatzeak, hau da, oinarri orokor batean argizatzea eta horiei gehitzea, batetik, epeltasun giroa sortzeko argiztapena eta, bestetik, argi puntualak (irakurketa txokoa edo lan eremuan, adibidez). Horretarako, hainbat aukera daude: zutikako lanpara, lanpara txikia edo sofa gaineko aplike orientagarriak.

**Ispilu estrategikoak:** Leiho aurrean jarrita, argia islatzen dute eta zabalatasun sentsazioa sortzen dute.

**Biltegitratze bertikala:** Apalategi altuekin edo neurritan egindako altzariekin, gunea hobeto aprobetxatzen da.

**Funtzio anitzeko altzariak:** Zuku asko atera ahal zaio egongelari, oso txikia izan arren. Gela banatzea da trikimailua, funtzio anitzeko altzariak aukeratzea — ohe-sofak, biltegitratze-pufak edo mahai luzagarriak, bakoitzaren beharren arabera eta bakarrik erabili nahi direnerako — eta altzariak paretetatik bereiztea.

**Testura arinak:** Lihoa edo kotoia bezalako oihala arinek freskotasuna ematen dute, egongela kargatu gabe.

**Oztoporik gabeko pasagunea:** Zirkulazio eroso mantendu eta ikusmen oztoporik gabe.

**Dekorazio-xehetasunak orekan:** Elementu gutxi erabili, eta ondo aukeratu, ikusmen-kaosa saihesteko. Hainbat elementu janzten dute egongela. Horien artean nabarmenenak sofako tapizak, errezelak eta kuxinak dira.

**Landare eta material naturalak:** Freskotasuna, goxotasuna eta aukitu goxoa ematen diote edozein espaziori.

## REFORMAS DIMI (Ondarroa)

# Bezere bakoitzaren beharretara egokitzea da gure filosofia



**E**tzerako konponbide integralak eskaintzen ditu Reformas Dimik. 36 urtetik gorako ibilbide oparoa da bere lan onaren berme.

Bezere bakoitzaren beharretara egokitzea helburu nagusi, Dimitru Covrigek gidaritutako enpresak zerbitzu integrala eskaintzen du, hala nola PVC eta aluminiozko leihoen instalazioa, igeltserotza lanak, barnealdean eraberritzea, etxe-aldaketak eta era guztietako konponketak, hau da, etzerako eta eraikuntzarako behar diren lan gehienak.

## ESPEZIALIZAZIOA

Leihoen instalazioan espezialistak dira, eta horren erakusle erabiltzen duten materiala. Izan ere, kalitate handiko PVC eta aluminiozko leihoekin lan egiten dute, isolamendu termikoa eta akustikoa hobetzeko. Nabarmendu dutenez, aldaketa horrekin, era berean, energia aurrezteko lortzen da.

Beste esparruei dagokienez, atalez atal, hauek dira enpresaren helburuak: Igeltzerotza eta eraberritze lanetan, kalitatea, garbitasuna eta epeak betetzea; barnealdeko lanetan, espazioak modernizatzea eta optimizatzea, bizi-kalitatea hobetzeko; eta etxe aldaketetan, profesionaltasuna, azkartasuna eta segurtasuna.



**REFORMAS  
DIMI**

688 859 209  
ventanasdimi.com



# Atsegin iturri intimoa

**B**ainugela higiene pertsonalerako lekua baino gehiago da: Berlaxatzeko tokia ere bada. Horregatik, haren antolaketa ondo aztertu behar da, are eta gehiago partekatu behar bada.

Bainugela txikia bada, funtsezkoa da zentimetro bakoitza ahalik eta gehien optimizatzea (esate baterako, funtzio bikoitzeko altzariak eta osagarriak erabilita), hormak eta altzariak kolore argiekin margozte eta ondo argiztatzea, argiztapen orokorra zein espezifikoak bermatuz. Materialeiei dagokienez, garrantzitsua da material iraunkorrek eta garbitzeko errazak aukeratzea: azulejoak hormetarako eta komuneko zorurako (hezetasunarekiko erresistenteak eta mantentzeko errazak dira) eta portzelana edo erretxina konketarako eta bainuontzirako.




**Hirigintza  
eta arkitektura**

Haurrak diseinuaren erdigunean  
Iani de Andres

**www.iani.studio**  
Urbite 9, behea · Markina-Xemein

birgaitzeak eta obra berria  
parte-hartzea eta auzolana  
jolasguneak eta hezkuntza-espazioak  
irrigarritasun hobekuntzak eta igogailuak  
Irrigarritasun Planak eta genero ikuspegia



**javier de andres**  
629389163

**ianire de andres**  
629686579



**BAKARRIK EZ ZAUDENEAN**

Etxea jende gehiagogaz partekatzen denean, bainugela puntu gatazkatsua izan ohi da, baina ez dauka zertan horrela izan, aldagai batzuk kontuan hartuz gero.

**Bainuontziaren orde, dutxa:** Espazioan irabaziko duzu, ur kontsumoa gutxitzeaz gain.

**Konketa bikoitza:** Lekua edukiz gero, aukera ona. Eguneroko higie errutina erraztuko du.

**Ispilua:** Zenbat eta handiagoa, hobe.

**Ateak:** Instalatu gidaridun atea edo normalak pribatutasuna lortzeko.

**Komunontzi esekiak:** Alde batetik, ez du espaziorik hartzen lurrean; beraz, leku gehiago edukiko duzu. Eta bestetik, bisualki espazioaren pertzepzioa aldarazten du: garbiago ikusten da.



**Altzariak:** Konketarako altzariak gutxienez bi kaxoi eduki beharko lituzke, bakoitza bere biltegitratze eta antolaketa sistemarekin —familiako kide guztien produktuak armairu berean joan daitezke—. Kaxatxo antolatzaileak, tiradera-bereizgailuak eta saskiak ezin hobeak dira espazioa ondo ordenatuta mantentzeko, eta, gainera, apaindura ukitua ematen diote bainugelari.

**ZELAN ORDENATU**

**Behar ez duzuna, bota:** Espazioan eta lasaitasun mentalean irabaziko duzu. Jarri arreta xehetasunei, dena ordenatuta dagoela eman dezan.

**Eskura eta bistan:** Ikusi ezin dituzun gauzak ez dira existitzen. Objektu jakin batzuk bainu-altzariaren gainean eduki nahi badituzu, bildu erretilu batean, praktikoagoa izan dadin eta ordenaren efektua lortzeko. Adi: botikina, umeengandik urrun!

**Biltegitratzea:** Biltegitratze sistema zarratua bada, ateen orde aukeratu tiraderadun modelo bat, erraz gainbegiratzeko eta bota beharrekoa botatzeko. Aldiz, irekia bada, akabera edo kolore bereko saskiak edo kaxak erabili. **Komunaren gainean:** Komunontziaren gaineko pareta erabili barik geratu ohi da. Apalategia jarri ahal duzu, edo atedun armairua, ordenaren sentsazioa areagotzeko.

**Hezetasunetatik salbu:** Toallak hobe arropen armairuan gordetzea, bainuontzitik eta dutxatik urrun.

**ARRIZABALAGA**  
INMOBILIARIA

Joseba Egia  
651 70 43 73

Guen kalea, 14 · MARKINA-XEMEIN





# LeKiPo

**Igeltsaritza  
Teilatuak  
Gremio koordinaketa**

Tel.: 668 594 978  
lekipo95@gmail.com  
Letraukua, 1 - 48280 LEKEITIO

# Amets, esna edo lo

**P**ertsona gehienek denbora gehiago ematen dute logelan etxeko beste edozein gelatan baino. Gainera, sarri lanerako ere erabiltzen da.

Ikerketa baten arabera, gure bizitzaren herena, gutxi gorabehera, lotan edo lo egin nahian ematen dugu: urtean 2.900 ordu. Argi dago oso garrantzitsua dela atsedean hartzea, bertan eroso sentitzea, gus-tura eta harmonian, eta espazioak bakea eta lasaitasuna transmiti-tzea da ondo lo egiteko gakoa.

Hainbat akatsek eragina daukate, bai lo egiteko, bai hurrengo egunean jaikitzeke, besteak beste, koltxoia gogorregia izatea, loak hartu aurreko momentuetarako irakurgaia non utzi ez jakitea, ar-giztapena ez zaintzea eta arropa guztia aulki baten gainean botata edukitzea.

Alde batetik, logelatik kendu egin behar da loari eragiten dion guztia (koltxoi txarra, gailu elektronikoak eta ordenarik gabe dagoena, adibidez). Gainera, altzarien kokapenak eta orientazioak garrantzi handia izango du etxeko espazio intimoenean. Hura ez itotzeko eta metro koadro bakoitza errentagarri bihurtzeko modua bilatu behar duzu.


Benetan funtsezkoa den horretan inbertitzea eta atrezzo polit baina merkeaz baliatzea da garrantzitsua.



**Eraikuntzak  
eta Igeltseritza**

**Miguel Angel Etxaniz Guenetxea**

Tel./Faxa: 946 160 048 | Mug.: 605 718 835  
etxanizanitua@telefonica.net  
Kareaga Ind. Pab. 1-6A  
Ilunzar auzoa, 3 MARKINA-XEMEIN



**ARNAITZ CASCO  
ELEKTRIZITATEA**

- Etxebizitzak
- Komunitateak
- Lokal komertzialak, etb.

Tel: 610 77 01 02  
Email: arnaitzcasco.elektrizitatea@gmail.com

Aranzibia 11, beheko eskuineko lokala  
48280 Lekeitio, Bizkaia



### LANERAKO ERE BADENEAN

Logela atsedenerako eta intimitaterako erreserbatutako gunea izan arren, batzuetan, behartuta gaude lanerako txoko bat atontzera. Horrelakoetan, komeni da aholku batzuk kontuan hartzea.

Logelak behar adinako tamaina badauka, saiatu eremuak (atseden-eremua eta lan-eremua) gutxienez bisualki bereizten. Horrela, lan egitean buruak espazio batean dagoen sentazioa edukiko du, eta lo egitean, beste batean.

Hori lortzeko, bionboak, gortina bereizleak edo neurrira diseinatutako altzariak erabiltzea da onena. Alfonbrekin ere proba egin dezakezu, edo eremuak kolore ezberdinez margotuta.

### ZAINDU ARGIA

Argi naturala oso ondasun preziatua da. Horrekin hobeto lan egiten da, eta nekea nabarmen murrizten da. Horregatik, lan-eremuak argi gehien sartzen den leihotik gertu egon behar du beti. Argia hegalean edukitzea da egokiena, ordenagailuaren pantailaren aurrean edo atzean jartzeak ikusmenari kalte egin baitiezaioke.

Bideodeiak egin behar badituzu, pentsatu zer jarri nahi duzun atzean, pantailaren beste aldekoek zeu bakarrik ez, hori ere ikusiko dute eta. Aukera bat baino gehiago egon daiteke, adibidez, landareak, artelan txikiak, binilo bat edo horma zuri soil bat.

Altzari tolesgarriak ere jarri ahal dituzu —funtzio anitzeko piezak sartu ahal dira, esate baterako, teknologia, artea eta argiztapena bateratzeko gai direnak—. Horrela, egunez bulego bat izango duzu eta, gauez, logela xume bat. Horretarako, hainbat aukera dauzkazu: ohea ezkutatu eta idazmahai agerian uzten duten altzariak edo justu kontrakoa. Nolanahi ere, kalitate handiko altzariak hautatzea komeni da, egunero itxi eta ireki beharko dituzulako eta hausteko arriskua dagoelako.



■ Ateak orokorrean  
Leihoak (PVC,  
aluminioa eta egurra)  
Aroztegiko lanak



**BEHAR DUZUN GUZTIA ETA GEHIAGO!**



**UDAKO  
PROMOZIOA:  
JARDINAK  
ETA ORTUAK**



 **xuri**  
suministro industrialak



Markina-Xemein, Kareaga Ind. 1 Kalea, 48278, Bizkaia



946 16 75 26



649 09 02 39



xuri@xurisl.net

## ONDOLOEGIN

**Kotxoia:** Zure osasunaren alde egin dezakezun inbertsiorik onenetakoa da. Hamar urtetik behin aldatzea komeni da.

**Burkoa:** Bi urtean behin aldatu, batetik, zuntzen dentsitatea galtzen delako eta horrek eragiten duelako lepoa eta burua ez eustea behar den modura, eta bestetik, akaroek eta zikinkeriak infestazioak eragin ditzaketelako.

**Izarak:** Kotoia, zeta eta lihoa bezalako zuntz naturalak gomendatzen dira udaberrirako eta udarako, temperatura altuengatik transpirazio eta freskotasun handiagoko behar denean. Udazkenean eta neguan, aldiz, zuntz polarrak, poliesterra edo artilea dira egokienak hozkilentzat, hau da, neguko ehunak.

**Argia:** Erabateko iluntasunak ondo lo egiten laguntzen du. Ziurtatu pertsianak erabat ixten direla edo gortina trinkoak dituzela.

Logelako lanparetarako, aukeratu ohera joan aurretik potentzia jaisteko aukera emango dizuten bonbilla erregulagarriak, zure gorputza deskonektatzeko prestatzeko.

**Koloreak:** Zuriak, urdinak eta kolore neutroek lasaitzen laguntzen dute. Oso monotonoak gera ez daitezten, testurekin jolastu dezakezu logelako elementuak aukeratzean hala nola, ohe-arropa, oheberrua eta osagarriak. Kolore indartsuren bat jarri nahi baduzu, ohetik ikusten ez duzun leku batean izan dadila.

**Banaketa:** Logelak funtzionala izan behar du. Kontuan hartu atal hori, adibidez, mesanotxea eta argiteria ipintzean.

**Intsonorizazioa:** Jarri oheberruko tapizatu bat ondoko etxekoen zaratatik isolatzeko, eta alfonbra on bat behetik datozen zaratak arintzeko. Kaleko zarata moteltzeko, ipini gortinak.

**Materialak:** Natura gogorarazten diguten material guztiek berehalako efektu lasaigarria dute. Erabili egurra eta harria, kanaberazko eta zumezko altzariak eta ehun naturalak, eta jarri landareak. Landare, esentzia eta kandela usainak ere naturarekin konektatzen lagunduko dizute.

**Distrazkiorik gabe:** Iratzargailuaren zenbaki gorriak nola pasatzen diren ikusteak ez du lo egiten laguntzen. Aukeratu iratzargailu tradizional bat, eta ez utzi gailu elektronikorik stand by moduan (aparatu horien argiek ez dute laguntzen loak hartzen). Ordena ere oso garrantzitsua da. Ez dugu atsedenenik hartuko begiak itxi aurretik anabasa ikusten badugu. Armairuek, komodek eta tiraderek dena gordeta edukitzen lagunduko digute.




**EGIGUREN  
ERAIKUNTZAK S.L.**

Loiolako Iñaki deuna kalea, 6-behea • LEKEITIO  
tel./faxes: 94-684 00 10 • egigurensi@gmail.com

1958tik **ZARAUTZ**  
ALTZARIAK

- Era guztietako altzariak
- Sofak eta osagarriak, tradizionalak zein azken tendentzietakoak
- Diseinu eta aurrekontuak

LEKEITIO • GERNIKA 94-684 06 53  
94-625 85 78



ZURE ETXEA  
ZURE NEURRIRA

📍 Dendari kalea 44, Lekeitio

☎ 94-684 30 14

📷 @dk\_lekeitio

✉ dkstudioalekeitio@yahoo.es



*Zure konfiantzazko burdindegia*



*12 urtez profesionalak,  
industrialak eta  
zuen etxeak hornitzen!*

Erremintak, torlojuak, postontziak,  
finkapen ezberdinak, giltzen kopiak,  
sarrailak, altzarietarako burdineria,  
eskailerak, garajeko manduak,  
kutxiluak eta artaziak zorroztea,  
sukaldeko tresnak, ontziak,  
mahai zapiak, osagaiak...  
GUREAN AURKITUKO DITUZU!

Artibai, 8 ONDARROA

94-683 22 07

leur2012@hotmail.es



# Bizitza onaz gozatuz

**E**txe barruan, eguneroko ongizatea lehenesten da, eta txoko bakoitza fisikoki eta emozionalki suspertuko gaituen espazio bihurtu nahi dugu.

Ukimena aliatu ona izan daiteke geure lau pareten artean ondo sentitzeko (liho naturalezko kuxinak edo kotoi organikoak maindireak ukitzeak eroso egoten lagunduko digu), eta mindfulness ere bai. Era berean, tono sosegatuak baliatu ditzakegu giro aproposa lortzeko. Horrez gain, forma biribileko altzariekin giro leunagoa eta abegikorragoa sortuko dugu, haurren eta maskoten segurtasuna bermatzeaz bat.

Biltegitratzeak ere lagunduko digu erosotasunean, adibidez, zuntz naturalezko saskien bidez. Gainera, edozein txokori testura eta goxotasuna eransten diote. Ordenari eusteko beste aukera batzuk: apal ireki baina ez bete-beteak, otomanoak (biltegitratzailearekin) eta bankuak (tiraderekin).

## KAPAKETA ARGIZTAPENA

**Erabili kapak:** Bai ehunak konbinatzean, bai argiekin jolas-tean. Argi malgu eta geruzadunak ezinbestekoak dira une bakoitzerako giroak sortzeko. Horretarako, aintzat hartu argi altuera eta intentsitate desberdinak (argiztapen beroak ongizatean laguntzen du). Era berean, berde dosi batekin, hau da, landareekin, naturarekin kontaktatuko dugu eta hobeto sentituko gara.



## ORAIN ETA GERO

Etxebizitza berriztatzeko orduan epe luzera begira jarri behar da, eta kontuan hartu urte batzuk barru beharoko duguna. Adibidez, ederra gelditu daiteke bainuontzi exentua komunaren erdi-erdian, baina etorkizunean ziu-rrerik dutxa baino ez dugu erabiliko.

Zirkulazio erosoa diseinatzea ere funtsezkoa da, adineko pertsonen joan-etorria eragotziko ez duena, alegia, ondo konektatua eta pasabide zabalekin. Etorkizunerako pentsatutako etxebizitza batek bizi aldaketetarako tarte utzi behar du. Espazio librea mantentzea ere ideia ona da, funtzio anitzeko inguruneak sortzea eta etxea behar berrietara egokitzea obra handien beharrik gabe. Istripu posibleak aintzat hartu behar direnez, oztopo arkitektonikoak kendu behar dira, besteak beste, mailak eta eskailerak, eta, ahal bada, arrapalak jarri haien ordez. Eskailerak kendu ezin badira, mailak koloreekin bereizi.

Sukaldean funtsezkoa da hainbat gailu ipintzea, hala nola ke-alarmaak, deskonexio automatikoa duten egosketaplakak (sutan geratu eta ahaztuta erretzen diren zartaginak saihesteko) edo argiztapen-detektagailuak (txorrota bat irekita geratzen bada ere). Aukeratzea posible denean, argi natural asko edukitzea komeni da, leiho handiak eta bista atseginak.

Kalitate handiko materialak aukeratu, hots, formatu handiko portzelanikoak, ehun garbigarriak eta kalitate handiko pintura. Hasieratik akabera onetan inbertitzeak etorkizuneko erreforma asko ekiditen ditu.

# LAIKOR

## ALTZARIAK ARROZTEGIA



- Sukaldeko altzariak eta elektrogailuak
- PVC, aluminio eta egurrezko leihoak
- Sarrera eta barruko ateak



94 684 2881  
609 482 958  
laikor43@gmail.com  
P. Abaroa • LEKEITIO



# Nahi dena klik batean

**D**omotikak etxeko ekintza asko automatizatzeko aukera ematen du. Adimen Artifiziala gehituta, beste maila batera pasa da.

Domotika aspaldi sartu zen etxeetan, eta orain Adimen Artifizialarekin horietan beste jauzi bat eman da. Adimen Artifiziala geure egunerokoaren parte da, eta gauza askotan lagun gaitzake. Zein da domotikarekiko aldea? Domotikak automatizazioak ahalbidetzen ditu, eta Adimen Artifizialak, automatizazioak automatizatu, hau da, automatizazio sistemak ikasi eta beharretara egokitzen da.

## ZERTARAKO

Onura praktikoak begi bistakoak dira. Adibidez, termostato adimendunek etxea nola berotzea gustatzen zaizun ikasten dute, argiztapen-sistemek atzeman egiten dute noiz nahi duzun argiak piztea eta hozkailuek erosketak miatu eta osagaiak noiz bukatuko zaizkizun kalkulatzeko dute. Era berean, energia erabilera optimizatzen lagundu ahal dizute —esate baterako, zure etxetresna elektrikoak sarean ahalik eta inpakturik txikienarekin erabiltzeko unerik egokiena gomenda diezazuke—, edo osasuna eta ongizatea bermatu —airea ez bada kalitatezkoa, iragazkiak edo hezegailuak aktibatuko ditu—. Kontrapuntuan, AAK ingurumenen daukan eragina eta horrek eragiten duen kezka dago, besteak beste, ur kantitate handiak kontsumitzen dituelako.

**GORKA**  
ERREFORMALANAK

IGELTSERITZA 627 48 72 09 ITURGINTZA 619 55 28 80  
gorkaerreformalanak@gmail.com  
ONDARROA

**Marmoleria PLAZA**

sukaldeko  
enzimerak  
hilerriko lanak  
marmolezko  
edozelako lanak

Basokoetxe industrialdea, 7  
48288 ISPASTER - Bizkaia  
Tel. 94-684 06 17

## Telekomunikazio zerbitzuak



# EGONKORTZEKO URRATSAK EMATEN JARRAITUZ

Manka Telekom komunikazio-hornitzaile zerbitzuak hamar urte daramatza Lea-Artibain errotuta. Aurrera begira, kalitatezko zerbitzua mantentzea eta barne prozesuetan efizienteagoak izatea dute erronka.

Internet-eko konexiorik fidagarriena eskaintzen du Manka Telekomek Lea-Artibai mailan, eta hori horrela dela erakusten dute azken gertaerek haren sortzaile Ander Calvo Legardak dioenez. «Lekeition herri guztia momentu batean Internet barik geratu zen. Ba, gure bezeroak ez, gure laguntasun edo *respaldoko linea* esaten zaionari esker», azaldu du.

Eskualdean errotzen eta azpiegiturak indartzen joan da Manka azken urteetan, herrietan zein industriaguneetan, horixe izan baitu helburu. Orain, beste fase batean sartuko dira. «Hurrengo urteetarako erronka barne prozesuetan efizienteagoak izatea eta bezeroak hobeto artatzea da. 2016an hasi ginen, eta bada garaia hartu-emanetarako bulego bat edukitzeko. Irailerako zabaltzea espero dugu», azaldu du Calvok.

## Komunikazio zuzena

Enpresa handiekin alderatuz, Mankak ez dauka tarifa aldakorrik, bakarra baino, ez du iraunkortasunik exijitzen eta estaldura guztiekin egiten du lana. Bestalde, bertoko enpresa da, eta enpresa handiek ez modura, teknikariek komunikazio zuzena ahalbidetzen du. Ez hori bakarrik: jendea gustura egotea konpromisoa da eurentzat. «Tokikoa izateak arduratsua izatea eskatzen dizu, agintzen duzun hori betetzea», diote. Gainera, bertakoak izanda, sarri instalazioa egin nahi den lekuaren ezaugarri zehatzak jakiten dituzte, eta horregatik premiei erantzuteko irtenbide zehatzak proposatzen dituzte.

Lan onaren fruituak hor daude. «Erabiltzaileak ase daude, eta hori seinale ona da. Izan ere, ahoz ahokoa da Manka Telekomen kalitatezko lanaren berme nagusia».

Gainera, sustraiekin daukaten erantzukizunaren erakusle, Manka Berriatuko futbol taldeko umeen taldearen babesle da.

## GURE ZERBITZUAK

- INTERNET
- TELEBISTA INTERNET BIDEZ
- FINKOA
- MUGIKORRAK

**MANKA**  
telekom

Erribera auzoa, 95  
BERRIATUA

**94-606 18 00**

**mankatelekom.eus**

*info@mankatelekom.eus*

# Behea guztiaren oinarri

**E**txebizitza eraberritzean kontuan hartu beharreko zereginen zerrendari materialen aukera gehitu behar zaio, eta horren baitan, besteak beste, haien estiloa eta kolorea.

Oso desberdina da erreforma moderno batean pentsatzea edo bizi osoko zoruak aprobeztatzen dituen. Beren edertasun, benetakotasun eta nobleziagatik, zurezko zoladurak dira apaingarrienak eta beroenak. Zurezko zoladuraren artean, bi aukera daude: batetik, oholtza trinkoa: bizitza osorako zorua da, isolamendu termikoa eta akustikoa eskaintzen ditu eta askotan leundu ahal da; eta bestetik, geruza anitzeko tarima: egonkorra eta erresistentea da, oholtza trinkoa baino merkeagoa, baina asko jota hiru bider leundu ahal da.

Haritza da erabiliena, bere edertasunagatik, gogortasunagatik eta hurbiltasunagatik (horrek aztarna ekologikoa murrizten du). Horri beste aukera batzuk gehitzen zaizkio, hala nola intxaurrondoa, oso preziatua txokolate koloreagatik eta bere zainengatik, lizarra, ia zuria eta ideala Eskandinaviako looketan, edo astigarra.

Zuraren berezko xarma gordetzen duten akaberak asko baloratzen dira. Argizaria ematea aukera ona da, baita ultramate olioztatzea ere, zainak eta korapiloak bistan uzten dituenak, eta bernizatzea (hobeto matea), kolpeen eta orbanen aurkako tratamendu gogorrena.

Zurezko zoruak arreta berezia behar dute, produktu espezifikoeekin garbitu behar dira eta hezetasunetik urrun egon behar dute.



## PROIEKTUAK eta ERAIKUNTZA

**ITEak**  
**Igogailuak**  
**Fatxadak**  
**Babes termikoa**  
**Zaharberritzeak**  
**Aurrezpen energetikoa**



**94 657 94 09**  
**682 05 01 37**

Artibai 38 Behea, Markina-Xemein  
[www.arkibide.eus](http://www.arkibide.eus)

**ARKIBIDE**

## ZURAZ GAIN, MUNDU BAT

### HARRIZKO MATERIALAK

**Marmola:** Bere edertasunagatik eta akabera leun eta distiratsunagatik nabarmentzen da. Sukaldeetan, beroaren aurrean duen erresistentziagatik erabiltzen da; bainuetan, hezetasunari eusteko duen gaitasunagatik; eta areto edo jantokietan, sofistikazioagatik.

**Kareharria, granitoa eta hareharria:** Kareharria erabilienetakoa da. Tonalitate leuna eta homogenea du ezaugarri. Logela eta egongeletarako proposa da, eta ez, ordea, sukalde eta bainugeletarako, hezetasunarekiko sentikorra baita. Bai granitoak —iragazgaitza eta gogortasun handikoa—, bai hareharriak —oso beroa—, dotore geratzen dira.

### DISEINU JARRAITUAK

**Mikrozementua:** Berritze-lanetarako aukera ezin hobea da, lehendik dagoen lurzoruan aplikatu daitekeelako (parketa izan ezik), nibelatuta badago. Etenik gabeko akabera ezin hobea da etxe osoa bateratzeko, eta giro gardenak sortzen ditu.

**Hormigoi leundua:** Iraunkortasun handia du eta oso erraza da mantentzea. Baina mikrozementua ez bezala, ezin da aplikatu hormigoizkoak ez diren lurzoruetan. Beraz, obra berrietarako bakarrik da egokia. Hormigoi leunduak akabera distiratsu dotorea du, eta kolorekarta mikrozementuarena baino mugatuagoa da, zabala izanagatik.

### PORTZELANIKOAK

Hezetasunaren, tenperatura altuen eta kolpeen aurrean erresistenteak dira. Hori dela eta, oso egokiak dira sukalderako eta bainugelarako. Mantentzeko errazak dira, higienikoak eta iraunkorrak. Diseinu, kolore eta akabera ugaritan daude. Portzelanikoekin zura edo harri naturala imitatu ahal da, horrenbeste diru gastatu barik.

**Zur zeramikoak:** Zur naturala imitatzen du, eta mantenimendu gutxiago eskatzen du.

### ITXURA TRADIZIONALA

**Tobazkoak:** Buztin egosizko baldosa hauen ezaugarria bere tonalitate argia eta ehundura zimur eta porotsua da. Iraunkorrak dira, baina sentikorrek dira orbanekiko. Horregatik, zigilatze-tratamendu erregularra behar dute.

**Hidraulikoak:** Ukitu berezi eta pertsonalizatua ematen dute. Portzelanikoek hidraulikoen diseinua erreproduzitzen dute.



**BAINUGELAK - SUKALDEAK - ARMAIRUAK  
ZERAMIKAK - ERAIKUNTZA GAIAK**

ARTABIDE 22 BEHEA, ONDARROA

946830849 / 671116722 📞

exposicion@saneamientosondarroa.com

# Kanpotik barrura begira

**X**ehetasun txikiekin terraza edo balkoia atondu ahal da. Emaizta: barrura begiratzen lagunduko digun kanpo espazioa.

Lekua daukagunean, egokiena terraza egongelaren luzapen gisa pentsatzea da. Sofa, besaulkiak eta mahai baxua dituzten kanpoaldeko multzoek erlaxatzeko, irakurtzeko edo aire zabaleko otordu informalak partekatzeko gunea sortzen laguntzen dute.

Aldiz, terraza txikietan pieza arin eta funtzionalak ipintzea da gakoa, hala nola mahai tolesgarriak, aulki pilagarriak edo funtzio anitzeko altzariak, alegia, behar ez direnean gordetzeko modukoak. Hormak edo barandak ere erabil daitezke. Azken batean, ondo aukeratutako elementu gutxi batzuekin, txoko eroso sor daiteke.

## LANDAREAK

Etxean landareak edukitzea beti da gustukoa, eta espazioa txikia denean ere, ez dago horri uko egin beharrik, nahiz eta terraza txikien apaintetak neketsua izateko ospea eduki. Euskarri bertikalek horretan laguntzen dute.

Eremu batzuk normalean oharkabean pasatzen dira. Euskarri bertikalek, hain zuzen, horiek aprobetxatzen dituzte. Ia azalerarik okupatu gabe hainbat landare jartzeko aukera ematen dute, eta harmonia sentsazioa ematen du. Landareak gorantz igotzea da



**ERIK MARGOAK**

DEKORAZIO      FATXADAK  
ETXEBIZITZAK      GARAJEAK

 608 965 474

 eriksanterbas94@gmail.com

AROTEGI  
OROKORRA  
•  
SUKALDEKO  
ALTZARIAK  
•  
DEKORAZIO  
PROIEKTUAK

•  
LOGELAK,  
EGONGELAK,  
KOMUNAK...

**osa**  
a r o z t e g i a  
s u k a l d e a k

**denda: 94 683 02 29**  
**aroztegia: 652 775 578**

San Inazio, 29 behea    ONDARROA  
osaerreformak@gmail.com

gakoa, eta landare egokiak jartzea, ze hainbat aldagai kontuan hartu behar dira: adibidez, terrazak gerizpe asko daukan edo landareok intimitatea gordetzeko erabiltzen ditugun.

### ZARRATZEKO PREMIA DAGO?

Batzuek balkoia zarratzea erabakitzen dute egongela edo logela handitzearren. Ondo pentsatzea komeni da, ze bazuetan, etxe barruan irabazten dena hain da txikia, ez baitu merezi inbertsioa egitea. Gainera, askotan, espazioak gaizki aprobetxatzeagatik sortzen da arazoa. Osteira, terraza edo balkoia zarratuz gero, kanpo-espazio bat galduko dugu, eta ez ahaztu etxean terraza edukitzeak psikologikoki hobeto egoten laguntzen duela, hots, kanpora begiratuaz barrua zaintzen.

Orientazioa edo hiri-ingurunea aldagai garrantzitsuak dira zirt edo zart egiteko orduan. Eta inguruan etxeko asko badaude edo zaratatsua bada, agian zentzuzkoena ez da mahai bat jartzea, baizik eta landarez hornitutako sareta bat, hotsa moteldu eta biltze sententzia emango dizuna. Kontuan hartu balkoi ideala ez dela halabeharrez handiena, baizik eta bertan bizi denaren erritmora eta inguratzen duen paisaiara ondoen egokitzen dena. Mahaia jartzeko orduan, ohar bat: Jangelako mahai biribil bat edo L formako altzariak irtenbide ezin hobea dira balkoi txikiarako.

Jarraibide hauek ere lagungarri izan daitezke:

**Aprobetxa ezazu altuera:** Hormetan, landare igokarietan edo esekigailuetan apalategiak jartzeak biltegitratzea eta aldakortasuna gehitzen du. Alfonbra, soropil edo baldosa batek eremua mugatu dezake, eta askoz erosoagoa bihurtu.

**Giro-argiztapena:** Girlandak, LED argiak, eguzki lanparak edo farol txikiak.

**Pertsonalizatu xehetasun txikiekin:** Kuxinak edo bestelako ehunak, loreontziak, alfonbrak eta zuntz naturalezko saskiak.


FORJA  
ARTISTIKOA  
Cesar Alcoz

www.cesaralcozforja.com



Kareaga II Pol. Industriala, 42 zenbk. MARKINA-XEMEIN  
Mug.: 636 596 768 / Tel.: 94-616 00 77  
cesaralcozforja@arbaso.com



# Berdearen onurak, erro-errotik

**L**andareek eragin nabarmena daukate ongizatean, alde batetik, airea garbitu eta hezetasuna berdintzen dutelako, eta, beste alde batetik, efektu lasaigarria daukatelako, antsietate maila murrizten laguntzen dute eta.



**Urre, s.a.**  
Eraikuntza enpresa

Aulesti kalea, 22  
48380 AULESTI (BIZKAIA)

urre@urre.es  
94-627 90 37



Hainbat landare gure loaren zaindari dira. Horren adibide, jazmina eta izpilkua; atsedenerako aliatu ditugu; jazminek insomnioari aurre egiten eta loaren kalitatea hobetzen laguntzen dute, eta izpilikuen propietate lasaigarriek nerbio-sistema erlaxatzen dute, estresa murriztu eta lo sakona erraztu.

Landareek aldartea altxatzen digute, naturarekin dugun berezko loturari esker. Gainera, horiek zainduta geure burua ere zaintzen dugu. Adituek diotenez, plantaterapiak pazientzia, ardua eta arreta osoa sustatzen ditu, eta aterpe emozionala eskaintzen digute, lorpen sententzia eta buru-lasaitasuna ematen dute eta.

Ikuste hutsak estres maila gutxitu dezake: pulstua eta presio arteriala jaitsi egiten dira, eta garuna lasaitu egiten da. Izan ere, aireaz gain, gure pentsamenduak ere garbitu ditzakete. Bainuan, sarreran edo logelan dauden landareek naturarekin batzen gaituzte.

### ERAGIN PSIKOLOGIKOAK

Landareek aldartea hobetzen dute. Ikutu berdeak espazio antzuei bizia ematen die, eta hori animoan ere islatzen da. Koloreek, formek eta baita hostoen xuxurla leunak ere eragin lasaigarria dute. Ikerketek erakusten dute: landareei begirada labur bat emanez gero, asebetetze eta lasaitasun sentimenduak sor daitezke.

Berdeak kontzentratzen laguntzen du. Batez ere telelanean edo bulego inguruan, landareak dekorazioa baino gehiago dira. Ikerketek frogatu dute espazio berdeetan pertsonen kontzentrazio handiagoarekin lan egiten dutela eta gutxiago nekatzen direla. Arrazoen artean daude oxigeno edukia pixka bat handitzen dutela eta mikroklima atseginagoa sorrarazten.

**Zaintza, arreta osoko praktika gisa:** Ureztatu, igurtzi eta noizean behin bere landareekin maitekiro hitz egiten duenak barealdiak sentitzen ditu. Eguneroko zaintza pentsamenduen zurrumbilatik irteteko hautu kontzientea da askorentzat; meditazio txiki bat.



### ZORIONA

Landare batzuk zaintzeko errazak direlako, airea garbitzen dutelako eta ahalmen sinbolikoa dutelako, bereziki egokiak dira ongi sentitzeko:



**Zinta (Chlorophytum comosum)**  
Zaintzeko erraza da eta maskotekiko erresistentea.

### Sansevieria

Bere hosto tente eta sendoek armadura berde bat dirudite. Arreta gutxi eskatzen du, eta barneko airearen kalitatea hobetzen du, logelarako edo etxeko bulegorako ezin hobea baita.



### Dypsis

Itxura airatu eta tropikalarekin, oportetako sententzia dakar. Leunki kullunkatzen diren hostoek efektu lasaigarria dute, eguneroko zurrumbiloen uharte txiki batek bezala.



### Anthurie

Bihotz-formako hosto distiratsuak eta lore sendoak maitasunaren, abegikortasunaren eta bizi-pozaren sinbolo dira. Bere dotorezia exotikoak automatikoki hobetzen du animoa.



### Drachenbaum (Dracaena)

Itxura dotorea, airea garbitzeko ahalmenearekin. Ezin hobea da etengabe ureztatu nahi ez duten baina landareei begira gozatzen duten pertsonentzat.

**MALAXETXEBARRIA**  
ARROZTEGIA

Basokoetxe Industrialdea, 9  
48288 - ISPASTER (Bizkaia)  
Tlf.: 656797799

**LAYROK, S.L.**  
IGELTSE RITZA

636 150 729 • 629 561 332  
Gardotza Industrialdea, P 21 Eraikina • BERRIATUA



# Aterpe

**E**rabat seguru sentitu nahi dugu. Horregatik, aseguruak era askotako estaldurak eskaintzen dituzte.

Sute-asegurua da ohikoena eta nahitaezko bakarra, baina geure esku ere badago gertakizun horren aurrean neurriak hartzea eta eragina arintzea.

Lotara joan aurretik, logelako atea zarratzean egon daiteke aldea. Izan ere, ate itxi batek oxigeno-ekarpena murrizten du. Gainera, karbono monoxidoaren kontzentrazioa apaltzen du: gela ireki batean oso maila altua pilatu daiteke. Atea itxiz gero, aldiz, tenperatura nabarmen jaisten da.



BARNE DISEINUA

ERREFORMAK, ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

ZEAR KALEA, 5 48270 MARKINA-XEMEIN  
94 616 63 26 - 676 972 034  
ibane@ibane.es - www.ibane.es

# eta babes

Bestalde, lo egitean, atek ixteaz gain, ebakuazio plan argi bat izan behar da:

**A aukera:** Logelako atetik irten (zure atzean itxiz) eta etxebizitzatik kanpo aurrez ezarritako topagune batera joan. Ate bat ireki aurretik, heldulekua ikutu: bero badago, ziur asko sua dago beste aldean. Ez ireki.

**B aukera:** Ezin baduzu atea ireki, leiho batetik ihes egin.

**C aukera:** Irteerarik ez badago, gorde zaitetz ate baten atzean, piztu argi bat, blokeatu arrailak arroparekin edo eskuoihalekin eta itxaron suhiltzaileak iritsi arte.

Lotara joan aurretik etxeko ate guztiak ixteak gune bateko suari eusten ere laguntzen du, eta, hala, suhiltzaileentzat errazago izango da ebakuatzea eta sua itzaltzea.

## GEHIGARRIAK

Prebentzioaren arloko funtsezko beste elementu batzuekin osa dezakezu segurtasuna:

Ke detekttagailuak eguneratuta eta behar bezala jarrita.

Itzalgailu irisgarriak eta egoera onean daudenak.

Ebakuazio plana etxeko kide guztiarekin probatzea.

Irteera bideak garbi eta erabilgarri mantentzea.

Sute aseguruaz gain, interesgarria izan daiteke aseguruaren estaldura zabaltzea eta beste batzuk ere barnebiltzea, adibidez, laguntza informatikoa, indarkeria digitala, telefono mugikorraren pantaila, giltzak eta sarrailak birjartzea, lapurretak (eta txartelak baliogabetzea), orientabide medikoa eta psikologikoa, hozkailuko janaria, etxetresna elektrikoaren matxurak, balio bereziko objektuak eta kristalak edo marmolak haustea.

• ERA GUZTIETAKO ERREFORMAK • TEILATUAK • FATXADAK

ERAIKUNTZAK ETA HARRILANAK S.L.

**IB**ARRI

687 795 736 • [ibetarri@ibetarri.eus](mailto:ibetarri@ibetarri.eus) • Eleizkale 5, 48380 AULESTI (BIZKAIA)



• BASERRIEN "BARRIZTEA" • ERAIKUNTZA BERRIA • PROIEKTUAK

# Bota aurretik, adi: berrerabili al da?

**G**ero eta garrantzi handiagoa ematen zaio ingurumena zaintzeko neurriak hartzeari. Hauek dira hori lortzeko urratsak: murriztu, berrerabili eta birziklatu.

**G** **GOIXARRI S.L.**

ERREFORMA LANAK

630 27 34 14 • 615 75 09 60

MUTRIKU  
goixarri@gmail.com

**ETXEBERRIA**  
lektrizitatea  
lectricidad

Tel.: 699 85 22 46  
ula.etxebe@gmail.com  
LEKEITIO

- INSTALAZIOAK OROKORREAN
- MANTENIMENDU LANAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK

## ZEREGIN?

**Pintatu:** Adibidez, aulkiak, armairuak, mahaiak eta boiserieak. Zalantzan bazaude, zuriz pintatu. Nolanahi ere, egurrezko altzarien kasuan pintura geruza batez estali aurretik beste aukera batzuk ere egon daitezke, hala nola, heldulekuak aldatzea edo berniza hobetzea. Altzariak melaninazkoak direnean, ostera, aukera ona da pintatzea.

**Lakatu:** Lakatuta, akabera profesionala, leuna, iraunkorra eta igurtziekiko erresistentea lortzen da. Kalitate handiko altzarietarako eta ateetarako baliabide aproposa da. Pintatzen badugu, merkeago aterako zaigu eta kolorea azkar aldatu ahal izango dugu, baina erresistentzia txikiagoa eta testura zimurtsuagoa dauka, eta brotxa markak agerian utz ditzake.

**Tapizatu:** Oihala jarri aurretik, pieza barrua ondo landu behar da (betegarria jarri eta esekidura leheneratu), eroso eta estetikoa izan dadin. Asko erabili behar baduzu, aukeratu gramaje handiko ehuna, gehiago iraungo du eta. Ostera, altzaria apaingarria bada, oihal finagoak eta arinagoak erabili, marrazki landuagokoak. Zorroa ipintzea beste aukera bat izan daiteke.

## LEKU ALDAKETA

Batzuetan nahikoa da altzariarentzat toki egokia bilatzea ederra bilakatzeko, edo erabilera aldatzea: Aulki bat gau-mahaia, aldizkari-gordetzekoa edo mahai osagarri bihur dezakezu.

**Aukerak:** Merkatuan hainbat aukera daude, esate baterako, biniloak, arroz-paperezko zintak (paper itsagarri dekoratuko biribilkiak), klarionezko pintura, papera eta oihalak. Material horiek teknika ugari ahalbidetzen dituzte.

**Argia:** Beira-arasa baten barruan argia gehitzea ideia bikaina izan daiteke itxura aldatu eta modernitatea emateko, beste argi iturri bat irabazteaz batera. Led tira batzuk jar ditzakegu apalen hondoan; fokuak, altzariaren aurrean, hari begira; edo aplikeak, goiko aldean.




**IZARRA**  
Iturgintza-berogintza  
gasa-aire egokitua

BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA  
660 485 802

**Almirante Gaztañeta 1, behea MUTRIKU**  
**943 603236 izarramutriku@gmail.com**

Energia berriztagarriak • Eguzki Energia  
Biomasa • Geotermia





# Maskota, bat gehiago familian

 **INOXKEA**  
HIRI ALTZARIAK

[inoxkea@inoxkea.com](mailto:inoxkea@inoxkea.com)

[www.inoxkea.com](http://www.inoxkea.com)

INOXIDABLEAK eta burdin lanak



**Tel. 94 624 35 40 / Mug. 626 77 01 97**

Okamika indust. 1 A pab. 1. Mod. / 48289 GIZABURUAGA

# Zure Ahol kulari tza & Inmobili aria



Artabide 12, Ondarroa  
info+ 94 683 18 02  
info@lagunkor.eus

## lagunkor



aholkularitza & inmobiliaria

**E**txe bat maskotentzat egoitzeko, ingurune seguru, garbi eta bizigarria sortu behar da, eta horretarako, material gogorrek atsedenerako gunea eta osagarriak antolatzea komeni da.

Etxeko maskotei buruzko estatistikek etxeko animaliekin batera bizitzeko joera gero eta handiagoa erakusten dute eta, bizitoki askotan umeak baino animalia gehiago daude. Ingurune osasuntsu eta maitakor batek aterpea, ongizatea eta bizi kaltatea bermatzen dizkio bizilagun horri.

Zure etxea maskotentzat prestatzeko jarraibideak hauek dira:

**Segurtasuna eta erosotasuna:** Aterpeak (etxolak) instalatu, berotik, hotzetik eta euritik babesteko. Ziurtatu mugitzeko bezain handiak baina epelak direla.

**Material egokiak:** Oheetarako, belusa edo felpa bezalako oihal erresistenteak aukeratu, eta behegain eta altzarietarako, erraz garbitzen diren materialak. Ilea metatzen edo katigatzen duten oihalak saihestu.

**Antolaketa:** Altzari funtzionalak erabili osagarriak, uhalak eta jostailuak antolatzeko. Etxean ordena mantentzen lagunduko dizute.

**Atsedenerako gunea:** Oheak, batez ere katuentzat, leku beroetan kokatu. Altueran edo leihoetatik hurbil jartzen badituzu, gusturago egongo dira, kanpoaldea ikustea gustatzen baitzaie.

**Etxe-asegurua:** Egiaztatu zure etxeko polizak hirugarrenei egindako kalteak estaltzeko «erantzukizun zibila» barne hartzen duen, edo kontratatu berariazko aseguru bat albaitaritze-estaldura handiagoa izateko.

#### BESTE GOMENDIO BATZUK

**Garbiketa:** Egunero ileak eta usainak kentzeko tresna espezializatuak erabili.

**Landareak:** Ziurtatu barruko landareak animalientzat seguruak direla.

**Adopzioa:** Lagun berri baten bila bazabiltza, adoptatu. Aterpe askok txakur eta katuentzako behin-behineko edo behin betiko etxeak bilatzen dituzte.





**OIZbarren**  
ERAIKUNTZA ETA INMOBILIARIA  
Txus Jaio  
94-616 80 32

[ MARKINA-XEMEIN ]



# Zelaialde


MARKINA · XEMEIN



## Markina-Xemein

### AZKEN ETXEBIZITZA 4. ATARIAN

### 5. ATARIA DAGOENeko SALGAI



5. Ataria:  
Dagoeneko  
SALGAI

4. Atarian:  
Azken  
etxebizitza

1., 2. eta 3. atariak:  
Dena salduta.  
ENTREGA 2026AN.

## Berriz ere Berdea



- 2 eta 3 logelako etxebizitzak, zure terrazara irteera duen egongela zabalarekin.
- Atiko ikusgarriak teilatupean, espazio zabalekin. Beheko solairuak lorategiarekin.
- Ekialdera eta Mendebaldera orientatuak, eguzkia egun osoan.
- Guztiz hornitutako sukaldeak, horma-armairuak logela guztietan, bainugela nagusia guztiz hornitua.
- Etxebizitzatik igogailuan sarbide zuzena duten garaje eta trastelekuak.

[WWW.ZELAIALDE.COM](http://WWW.ZELAIALDE.COM)



**GE**  
grupo eibar  
inmobiliario

MARKINA- XEMEIN:  
Okerra kalea 2  
679 032 342  
comercial@grupoeibar.com  
www.grupoeibar.com

xemein**berri**  
bizisunea

**GARAJE PLAZAK  
SALGAI**

Agustin Deuna kalea 26  
Markina-Xemein

26



# IBARPLAS

## LEIHOAK · VENTANAS

TLF. 943-19 92 26 · [ibarplas@ibarplas.com](mailto:ibarplas@ibarplas.com)

[www.ibarplas.com](http://www.ibarplas.com)

Familiatik datorren tradizioa, Ibarplasen 1991z gerostik ari gara neurrira egindako PVCzko leihoak eta kanpoko arotzeriako mota guztietako soluzioak fabrikatzen eta instalatzen.



Industrialdea kalea, C partz, 5. nabea  
20829 Itziar (Gipuzkoa)